

Francisco de Herrera Zaharraren *Senitarte Santua*

Louis-Philippe Galeria espainiarrean



Benito Navarrete Prieto

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao:

1.-8., 12., 13. eta 15. ir.

© Hamburger Kunsthalle: 14. ir.

© Polo Museale Fiorentino: 11. ir.

Argitalpena:

B'07 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 3. zenb., 2008, 75.-100. or.

Babeslea:



Francisco de Herrera Zaharra oinarri-oinarrizko margolaria da Espainiako pinturan, «manierista erreformatuak» deritzenen eta behin betiko naturalismoari heldu zietenen arteko zubi bezala. Horrexegatik, bere obrarekin eratu zen 2005ean aurkeztu genuen erakusketa proiektua¹. Asmoa zen Pérez Sánchekz maisu handien belaunaldia izendatu zuenaren arrago bezala artista sevillarrak duen garrantzia azpimarratzea. Haren obran, XVII. mendearen lehenengo herenean ondo sartu arte Sevillako panorama piktorikoaren berrikuntza ezarriko zuten balio plastikoak, kromatikoak eta formalak antzematen dira.

Esan genezake, erratzeko beldurrik gabe, Herrerak San Buenaventurari eskainitako zikloa edo *Senitarte Santu* hau [1. ir.] (handik urte gutxira egindakoa ziurrenik) egin zituenean bere artea heldutasun betean zegoela, eta garai haietan Sevillan zebiltzan artisten parte handi batentzat erreferentea ere izango zen. Artista horien artean, zalantzarik gabe, Zurbarán zegoen. Zurbaránek Herrera Zaharraren pintura askotako biribiltasun eskulturala hartzen jakin zuen, baita haren balio kromatikoak eta olioak aplikatzerakoan zeukan gaitasun plastikoa eta modelatzeko ere.

Esku artean darabilgun koadro hau Frantziskotar Klaratarren Sevillako Santa Inés Komenturako egin zuen Herrerak, baita *Espiritu Santuaren etorrera* bat ere. Oihal bata zein bestea alboetako erretaula banatan jarri zituzten, elizako habearte nagusiaren beheko aldean. Erretaula horien polikromia 1636 eta 1637 artean egin zen. Hauxe izan zen margolariak jaso zuen ordain-gutuna «cuatro mil reales con los cuales y con otros 3.250 que me tiene entregados en diferentes partidas me tiene pagados 7.350 reales que son el resto de los nueve mil que hube de haber por la pintura, dorado y estofado de los dos retablos que se hicieron para la Iglesia del dicho monasterio, el uno de la venida del Espíritu Santo y el otro de Señora Santa Ana que están puestos en la dicha iglesia...»².

Thacher³ izan zen kontratu hori *Senitarte Santua* lanarekin lotu zuen lehenengoa. Bitxikeria bezala, protokoloan *Santa Ana*⁴ bat bezala izendatuta dago, eta horrek, beharbada, santaren familia eta haren leinu apostolikoa adierazi nahi izango ditu, baina gai hau aurrerago ere jorratuko dugu, zabalago. Egia esan, *Espiritu Santuaren etorrera* eta *Senitarte Santua* oihalak Santa Inés elizan egon ziren 1838ra arte. Ponzek bere *Espainiako Bidaia* lanean honela aipatzen ditu artelanok:

1 Sevilla/Bilbao 2005, 150.-153. or., 13. zenb.

2 López Martínez 1928, 66. or.

3 Thacher 1937, 367. or.

4 Soriak, hala ere, nahiago du agiri hau Contini-Bonacossi-n egondako (gaur egun Juan Abellóren bilduman dago) Herreraren *Santa Ana eta Ama Birjina* lanarekin lotu. Gure iritzian, hori nekez izango zen horrela, batetik, lanaren neurriengatik, eta, bestetik, debozio pribatuko koadroa delako. Cfr. Kubler/Soria 1959, 382. or., 36. oharra.



© Babestutako materiala

1. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitate Santua, 1636-1637
Olioa mihisean. 194,5 x 177 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 69/127

Francisco Herreraren bi pintura berezi eta oso eder daude eliza honetan: bata, Familia Santuarena, apaingarri askokoa eta, gainean, Aita Betierekoa; eta, bestea, Espiritu Santuaren etorrerarena, Apostoluen gainean, aurrekoa baino hobea, asmamen hobekoa. Horman jarri dute modako zuraje baten orde, eta ez lehen zegoen erretaulan⁵.

Zoritxarrez, ez dakigu azkeneko pintura horren gaineko ezer. Pintura hori, Ponzen iritzirako, «Famili Santuarena» berarena baino asmamen hobekoa zen. Horrek, alde batetik, oihalen garrantzia zenbaterainokoa den erakusten digu, eta, bestetik, eruditua diotenaren argitara, erretaula banatan sartuta zeudela. Datu horiek egiaztatu egiten dute López Martínezek argitaratutako dokumentaziotik ondorioztatzen den berria, hau da, Herrerari bi erretaulak pintatzeagatik, urreztatzeagatik eta estofatzeagatik ordaindu zitzaioela eta ez pinturengatik. Pinturak, ziurrenik, lehenago egindakoak izango ziren⁶. 1791n Arana de Varflorak⁷ «merituzkotzat» jo zituen Santa Inés Komentuko elizan dauden Herreraren margoak.

Gómez Ímazek⁸ 1810ean egin zuen inbentarioan bi pinturotako bat ere ez da agertzen gobernu arrotzak ebatzitateko koadroen artean eta, beraz, *Senitarte Santua* koadro horren ostean galdu zela pentsatu behar du, horren ostean eta 1838. urtea baino lehen. Hala ere, eta azkeneko data horretarako margo hori Louvren bazegoen ere, 1844an González de Leónek oihal horiek Santa Inésen zeudela jaso zuen: «Habearte nagusiaren oinetan Herrera Zaharraren koadro eder bi daude: bata Familia Santua irudikatzen du beste figura batzuekin batera, eta besteak Espiritu Santuaren Etorrera apostolu-kolegioaren gainean»⁹. Hori, argi eta garbi, eta orain ikusiko dugun moduan, ez da zuzena, eta pentsarazten du González de Leónek aurreko urteetako erreferentziak kontuan hartuta esan edo idatzi zuela hori. Herreraren oihalak Santa Inésetik kanpora zeudela Pascual Madozek egiaztatu zuen 1849an, halaxe baitzioen: «Lehen Francisco Herrera Zaharraren margolan onak zeuden bertan»¹⁰.

Senitarte Santua oihala Parisen zegoen lehenengo erreferentzia historikoa, beraz, 1838ko irailaren 20koa da. Louis-Philippe Galeria espainiarrean zegoen¹¹ —galeria hori 1838tik 1848ra bitartean egon zen irekita jendearentzat Louvren—, Juan de Roelasek egina zelakoan. Datu hori orain arte identifikatu eta erlazionatu gabe zegoen, gure obra garai hartan margolari horrek egina zela uste zelako. Baina koadroa Herrerek egina zen eta Santa Inésetik etorri zen egiaztapen frogagarria gai honi buruz Louis-Philippe Galeriako Notiziako 256. sarreran egiten den deskripzioan daukagu: «L'Enfant-Jésus et saint Jean-Baptiste. Sainte Élisabeth vient visiter la Vierge Marie. Elle porte saint Jean-Baptiste, qui, à la vue de l'Enfant Jésus, lui tend les bras pour l'embrasser. Haut. 2 m. 70 c. - Larg. 1 m. 80 c.»¹².

Erreferentzia horrek, zalantzarik gabe, Herreraren koadroari egiten dio aipamena, izan ere, eta zailtasunak gorabehera, ikonografiaren identifikazio zuzena egiten du, eta, are garrantzitsuagoa, jatorrizko neurriena, ebaketa gabe. Horrek esan nahi du gaur egun daukan altuera 194,5 cm-koa bada, oihalaria, gutxi gorabehera, 76 cm falta zaizkiola altueran eta 3 cm eskas zabaleran. Hau da, horrela, Antonio Martínez Ripollek bere doktore tesian¹³ proposatu zituen neurrietara gerturatzen da, eta, beraz, Lasterraren¹⁴ kalkuluak deuseztatzen ditu. Izan ere, Lasterrak oihala lau metro luze zela zioen. Baina nik neuk *Herreratik Velazquezera*

5 Ponz 1947, IX. libk., IV. gutuna, 793. or. Antonio Ponz jaunaren eta Sevillan zeukan informatzaile Conde del Águilaren arteko korrespondentzian emandako albistea hau da: «Santa Inés: De Herrera el Viejo: Los dos retablos celebrados (Quitaron poco ha del uno el lienzo de la venida del Espíritu Santo y lo tienen colgado junto al choro)». Cfr. Mata 1929, 177. or.

6 Bat nator Ana Galilearen iritziarekin, margolana 1634 eta 1635. urteen artean kokatzeko orduan. Cfr. Galilea Antón 1992.

7 Arana 1791, II. libk., 39. or.

8 Gómez Ímaz 1896.

9 González de León 1844, II. libk., 159. or.

10 Madoz 1849, 328. or.

11 Louvrek Museoko Artxiboak, Paris, 1 DD 122. Galeria Espainiarraren Inbentarioa, 281. zerb.

12 Baticle/Marinas 1981, 165. or., 256. zerb., Louis-Philippe Galeriakoa, Paris, 248. zerb. (1), 256. zerb. (4).

13 Martínez Ripoll 1978, 155.-156. or., P. 66. zerb. Koadroa 3 metro garai ingurukoa izango zela proposatu zuen.

14 Lasterra 1967, 81.-82. or.

erakusketaren katalogoan¹⁵ proposatu nituen neurriak ere ezerezean uzten ditu. Goiko parteko mantu urdinean kerubin-buruz inguratuta geratzen diren hondarrak, zalantza barik, Aita Betierekoarenak¹⁶ izango ziren, eta halaxe dio Ponzek. Beraz, ez dago Sortzez Garbiarentzako lekurik, nahiz eta nik hala esan nuen. Ondorioz, lehen esandako hori zuzendu egin behar dut orain.

Oihalaren bidaiako hurrengo data 1853ko maiatzaren 20a da, Louis-Philippe Londresen saldu zenekoa. Bertan, gure koadroa 341. zenbakiarekin agertu zen, eta erreferentzia honekin: «Sevillako komentu batekoa». Haines izeneko batek erosi zuen 17 liberan. Ez dakigu Haines George Alexander Hoskinsen¹⁷ izenean aritu zen enkantean, oihala bilduma horretan sartu zen eta. Hain zuzen ere, 1857an, Manchesterren, *Trésors d'art*¹⁸ izeneko erakusketa gogoangarian erakutsi zenean, bildumagile horren bildumako parte legez erakutsi zen. Erakusketa hartan espainiar ondareko beste ale batzuk ere erakutsi ziren, lapurtutako edo Soult mariskalak¹⁹ ezkutuan erositako aleak, hain zuzen ere. Beste kasu batzuetan bezala, *Senitarte Santua* obra Juan de Roelasek egindako moduan agertu zen, eta, ondorioz, oso zaila izan da beste behin ere artelana identifikatzea. Hala ere, katalogoan ikonografia aipatzen da: «530 Madonna and St. Elizabeth with the meeting of the Holy children». Eta horrek, berriz ere, zalantza guztiak uxatzen ditu.

Bilboko Arte Eder Museoa dagoen erosketa-agirian [2. ir.]²⁰ ere argi eta garbi ikusten da erakusketa hartan egon zela egile horren izenarekin, eta markoan ere egiaztatzen da kontu hori [3. ir.]:

MADONNA & ST. ELIZABETH
With the meeting of the Holy Children
Painted
by JUAN DE LAS ROELAS
Born 1560 – Died 1625
from the Collection of Geo. A. Hoskins 1 8 1 [?]
Exhibited at the Manchester Exhibition of Art Treasures 1857.

Hoskinsen salmenta 1864ko ekainaren 17aren eta 18aren artean egin zen Londresen, antikuario ezaguna hil eta hilabete batzuetara. Oihala 190. zenbakiarekin agertu zen. *Senitarte Santua* beste esku batzuetara igaro zen berriz ere eta, urteen joanean, Londreseko Art Collectors Association Limited-en jabetzara pasatu zen. Elkarte horretako zuzendaria Edgar M. Andrews zen, eta 1920ko apirilaren 27an Bilboko Arte Eder Museoaren Zuzendaritzari saldu zion lau mila pezetan.

Argi dago Louis-Philippe galerian agertu zenetik Bilbora iritsi zen arteko uneren batean koadroa moztu egin zutela, goiko partean mozketa garbi bat antzeman daitekeelako. Mozketa horren ondorioz desagertu egin zen Aita Betierekoa, baina haren mantu urdinaren hondarrak geratu ziren, baita kerubinenak eta loreak zabaltzen

15 Benito Navarrete Prieto in Sevilla/Bilbao 2005, 150. or., 13. zenb.

16 Angulok proposatu zuen goiko aldean falta den figura Santa Ana izan daitekeela. Cf. Angulo 1971, 85. or. Valdiviesok, hala ere, Jainko Aitarengan eta Espiritu Santuarengan pentsatu zuen pinturari errematea emateko. Cf. Valdivieso 2003, 246. or.

17 George Alexander Hoskins (1802-1863) ingelesa, antikuarioa, artista, idazlea eta bidaiaria (Afrika eta Espainian zenbait aldiz izan zen), eta hortik datorkio pintura espainiarrarekiko interesa. Eskerrak eman nahi dizkiot Ana Sánchez-Lassari, informazio hau ematearren.

18 Burger 1857, 45. or., 530. zenb. Eskerrak eman nahi dizkiot Odile Delendari, Wildenstein Institute-ko liburutegian katalogo hau kontsultatzeko aukera emateagatik.

19 Manchesterreko erakusketa honetan (Burger 1857) Murilloren *Santa Katalina* ere egon zen ikusgai. Lan hori Sevillako Santa Katalina elizan zegoen; Soulték lapurtu egin zuen, eta, ondoren, William Stirlingen bildumara igaro zen. Manchesterren egon zenean, Zurbaránena zela esan zen. Ikus Navarrete 2003, 263.-268. or.

20 Eskerrak eman behar dizkiot Ana Sánchez-Lassari, bai dokumentazio hau kontsultatzeko emandako erraztasunengatik, zein markoaren inskripzioa irakurtzeko emandako laguntzagatik.

TELEGRAMS:-
ARCOJUM, CHARLES, LONDON."

All offers are made subject to withdrawal and to being unsold on receipt of reply.

0355

The
Art Collectors' Association
Limited.

Directors,
THOMAS OUTEN,
EDGAR M. ANDREWS.

12a, WATERLOO PLACE,
LOWER REGENT STREET,
LONDON, S.W. 1.

M. Edgar M. Andrews Director
de The Art Collectors' Association Ltd.

Ha recibido de Sr. Manuel Bosada la cantidad de Cuatro mil pesetas (4.000) importe de la venta del cuadro titulado =
"La Virgen del Niño, de Juan de Roelas. Exhibido como original en la Exposición de Tesoros del Arte en Manchester (1857). cuyo cuadro lo ha adquirido en propiedad la Junta del Museo de Bellas Artes de Bilbao para que conste dicha adquisición firma el presente el referido Director de Bilbao a 27 de Abril de 1920.

S. M. Andrews

April 27-1920

© Babestutako materiala

2. Senitarte Santua Londresko The Art Collectors Association Limited erakundeari erosi zitzaioneko ordainagiria, 1920ko apirilaren 27a



3. Senitarte Santua lanaren markoko kartela

© Babestutako materiala

dituzten aingeruenak ere. Hor daukagu Ponzen lekukotza: «Familia Santua, apaingarri askokoa, eta, gainean, Aita Betierekoa»; eta batez ere lehen ere esan dugun jatorrizko neurrien (2,70 luze) aipamena. Pentsa genezake goiko partekoa istripu bat izan zela, gaur egun daukan markora egokitzea, edo izan dituen jabeen gustu kontua edo eman dioten kokalekuaren ondorioa.

Ikonografiari dagokionez, koadroak konplexutasun eta aberastasun guztiz berriak ditu espainiar pinturarako, baita Erdi Aro sasoiko iparraldeko erroak ere. Beharbada, Herrerak era horretako irudiren edo pinturaren bat hartuko zuen eskema gisa, hau da, Kristoren giza izaeraren (beheko partean pertsonifikatuta, lehengusu guztiekin batera) eta jainkotiarraren (konposizioaren goiko partean Aita Betierekoa –galduta– jarrita) arteko bitasuna argi eta garbi erakusteko.

Herrerak, Senitarte Santuaren interpretazio honetan, Kristoren eta bere lehengusuen protagonismoa nabarmendu zuen, eta batez ere San Joan Bataiatzailearena, Moreno Cuadrok²¹ adierazi duen moduan, Aitzindariaren eta Salbatzailearen arteko harremanaren aipamen argia eginez. Artistak bi figura horiek [4. ir.] jarri zituen konposizioaren erdigune neuralgikoan, eta euren buruetan gurutze bat gurutzatzen da, eszena pintura barrokoak berezkoa duen diagonalen joko baten arabera ordenatzeko. Aurreko partean, eskumako aldean, Santa Isabel ageri da, eta, atzean, bere senarra, Zakarias. Santa Isabelek²² semea dauka altzoan, San Joan Bataiatzailea, eta Bataiatzaileak bere burua Jesus Haurarenaren gainean dauka. Jesusek besarkatuta dauka San Joan, eta amaren altzoan dago, Maria Birjinaren altzoan. Euren atzean San Jose dago, eta bi buruen artean, Santa Ana, bilobari begira, nostalgiaz. Santa Isabelen eta Ama Birjinaren buruen artean, konposizioaren erdian, Mariaren beste bi ahizpak daude, oihalean ezkerretara eta Kristoren eskuintara, Maria Salome, Zebedeoren emaztea eta San Joan Ebanjelariaren eta Santiago Nagusiaren ama. Bi semeak haur irudiarekin agertzen dira [5. ir.] ezkerreko beheko partean, aurre-aurrean. San Joan Ebanjelaria Kristo seinalatzen ari da, eta Santiago Nagusiak kokotsa bere anaiaren sorbalda gainean dauka. San Joan txikiaren eta Santa Isabelen buruen artean Maria Kleofasena dago. Maria Kleofasek, Alfeoren emazteak, lau seme izan zituen: Santiago Txikia, Simon, Judas Tadeo eta Jose Justua. Azkeneko hori ez zenez apostolua izan, koadroan lehenengo hirurak baino ez dira agertzen, horietako bat San Joan Bataiatzailearen arkumearen aldamenean [6. ir.].

Reauk²³ dioen bezala, Mariaren Familia ez da Familia Santuarekin nahastu behar; baina egin izan da oihal honekin eta antzeko ikonografia duten beste batzuekin. Honetan, egiazki erakusten dena Santa Anaren leinu apostolikoa da, hau da, Santa Ana Andrearen jatorria. Birjinaren ama, bitxia bada ere, bigarren maila batean ageri da Herreraren koadroan [7. ir.], eta apostoluei, berriz, erabateko protagonismoa ematen zaie (horiexek zabaldu baitzuten Kristoren mezua), batez ere, San Joan Bataiatzailea haurtxoari. Azkeneko horrek, kaliza mahaian duela, Kristo seinalatuz, esan nahi du, eduki profetiko argiarekin, bera izango dela gizateria salbatuko eta libratuko duena, hau da, Kristoren pasioa eta heriotza aurreikusiko balitu bezala. Beraz, San Joan teologo bezala irudikatzen da, Kristoren jainkotasuna beste inork baino hobeto probatuko duelako²⁴.

Santa Anaren hiru ezkontzen tradizio aprofikoa (Urrezko Kondairan agertzen da), batez ere, –Reauk²⁵ adierazitako moduan– 1406tik aurrera egin zen ezagun. Corbieko Santa Coletaren ikuspenaren ondorioa izan zen hori. Santa Coleta Ganteko komentuko abadesa zen, eta bertan agertu zitzaion Santa Ana bere hiru alabekin eta beraien semeekin, baita Birjinaren lehengusina Santa Isabel eta bere seme San Joan Bataiatzailea ere. Gai hori, Herrerak irudikatzen duen moduan, batez ere Herbehereetan zabaldu zen.

21 Moreno 1994, 34.-37. or.

22 Eskerrak eman behar dizkiot Odile Delendari, *Senitarte Santuari* dagokionez emandako laguntza ikonografikoagatik.

23 Réau 1996-1998, 1. libk., 2. libk., 147.-149. or.

24 Ibid., 2. libk., 4. libk., 186. or.

25 Ibid., 1. libk., 2. libk., 147.-149. or.



4. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, 1636-1637
Bilboko Arte Eder Museoa
Jesu Kristoren eta San Juan Bataiatzailearen xehetasuna



5. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, 1636-1637
Bilboko Arte Eder Museoa
San Juan Ebanjelariaren eta Santiago Nagusiaren xehetasuna



6. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, 1636-1637
Bilboko Arte Eder Museoa
Santiago Txikiaren, Simonen eta Judas Tadeoren xehetasuna



7. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, 1636-1637
Bilboko Arte Eder Museoa
Santa Anaren xehetasuna



8. Gaztelako anonimoa
Ama Birjinaren familia, XVI. mendeko lehen laurdena
 Tenpera sargan. 120 x 174, 5 cm
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 69/276

Nabarmendu behar da XV. mendeko eta XVI. mendearen hasierako urteetako ikonografian, batez ere Herbehereetan, Santa Anaren hiru senarrak agertzen direla. Hori ez da agertu ere egiten Herreraren oihalean, baina, esate baterako, Bilboko Arte Eder Museoa dagoen XVI. mendeko lehenengo hereneko sarga batean bai ikus liteke [8. ir.]. Sarga horretan ere Senitarte Santua irudikatzen da, baina Santa Anaren senarrak Birjinaren beste ahizpen senarren ondoan daudela, beraien semeekin. Gai hori Iparraldeko pinturako eta Flandeseko pinturako berezko gaia da, eta hainbat eta hainbat adibide kontserbatzen dira oraindik ere²⁶. Trentoko Kontzilioak bereak eta bi egin zituen Santa Anaren antzutasun luzearen ondoriozko antzinako tradizio hori ukatzeko, eta, beharbada horregatik, Espainiako adibide urrietan, beraren hiru alabak irudikatzen dira batez ere: Maria Birjina, Maria Salome eta Maria Kleofas, eta hiru horien semeak. Herrerak, bere karre-raren amaiera aldera, Madrilen, berriz ere hartuko du gai hori, 1650. urtearen inguruko [9. ir.] eta kalitate urriagoko²⁷ pintura batean. Pintura hori interesgarria da errematean Aita Betierekoa eta Espiritu Santuaren Usoarekin jolasean ari den Haurra erakusten dituelako, amaren eta Santa Isabelen artean. Oihal horretan, hala ere, ez da agertzen San Joan Bataiatzailea, eta gainerako pertsonaiak ere buruak baino ez dira, guztia pintzelada askeago batez egin da, eta Bilbon dagoen eta hemen aztertu dugun oihaleko maisutasunaren aldean, askoz ere kalitate gutxiagokoa. Debozio pribatuko pintura bat delako izango da hori beharbada.

Bilboko pinturak duen planteamendu ikonografiko bera du Casa Lojako Kondesaren Bilduman dagoen Francisco Riziren Senitarte Santuak [10. ir.]²⁸. Azkeneko pintura horren prestaketa-marrakia kontserbatzen da

26 Moreno 1994, 34.-36. or., proposatutakoez gain, batez ere Santa Anaren Familiarentzat, duela gutxi enkante batean agertu zen Senitarte Santu bat, Anbereseko esparrukoa eta 1520. urtearen inguruan datatua, Santa Anaren eta Hiru Marien senarrekin eta beraien semeekin. Ikus *Important Old Master Paintings, Part I, including J.M.W. Turner's «Giudecca, La Donna della Salute and San Giorgio»*. New York: Christie's, 2006, 58.-59. or., 24. zenb.

27 Salmenta publikoan agertu zen: *Sotheby's Peel & Asociados. Pintura antigua y dibujos*, Madril, 1993ko maiatzaren 18a, 16. zenb.

28 Madril 1986, 242. or., 66. zenb.



9. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, c. 1650
 Olioa mihisean. 156 x 126 cm
 Bilduma partikularra, Madril



10. Francisco Rizi (1614-1685)
Senitarte Santua, c. 1640
 Olioa mihisean. 163 x 135 cm
 Condesa de Casa Loja Bilduma

Errege Jauregiko Liburutegian. Rizik beraren karrerako hasierako urteetan (1640an seguru asko)²⁹ margotu zuen obra horretan pertsonaia berberak daukagu, baina Santa Ana gabe. Hala ere, haren hiru alabak bertan dira: Maria Birjina, Maria Salome, Maria Kleofas eta, beste behin ere, Santa Isabel. Azkeneko horrek, kasu honetan, San Joan Bataiatzailea dauka, eta beste ertzean San Joan Ebanjelaria arkumearekin jolasean ari da, eta bere anaia Santiago Nagusia, erromes jantzita, eta beste lehengusuak dauka inguruan. Herreraren koadroan bezala, hemen ere Santa Anaren hiru senarrak ez dira agertzen, Trentoko aginduak betetzen ditu, beraz, kondairei kasu egin barik.

Bilboko *Senitarte Santua* Herrerak San Buenaventura Ikastetxerako egin zuen lanaren garai bertsuetan eginikoa izango da. Enpasteek eta koloreek hala erakusten dute, eta seguru asko 1636-1637 baino lehenago eginikoa izango da, hau da, pintura horiek hartuko zituzten erretaulak urreztatu zituzten urteak baino lehenago. Beraz, data aurreratu behar genuke, 1634. urte ingurura, hau da, Galilea Antónek³⁰ lehenago adierazitako kronologia hartu beharko genuke kontuan. Nabaria da Herrera, lan honi ekin zionean, bere karreraren³¹ eta aintzatespenaren gailurrean zegoela, eta hemen lortu zuen kalitatea zail izango da beste obra batzuetan ere ikustea, jakin badakigulako zein desberdina izan zen bere pintura. Tipoei ematen dien monumentaltasunari eta umeen aurpegietan antzematen den graziari, era berean, bere kerubinen ezaugarria gehitu behar zaie, izan ere, bere marrazkiekin lotzen dira, eta, horietarako, oharren edo urraturen bat egingo zuen. Hain zuzen ere, ez da esan Uffizitarren Gabinetto Disegni e Stampe-n kerubin buru batzuk daudela, berak eskuz eginak,

29 Lan honen kontratuan, Francisco Rizik konpromisoa hartu zuen Francisco Manuel presbiteroarentzat koadro bat margotzeko gai honekin: «La parentela de nuestro señor en conformidad de un dibujo que tengo hecho». Cf. Barrio 1981.

30 Galilea Antón 1992.

31 Lafuente Ferrarik margolariaren unerik onenean kokatzen du margolan hau, eta, daukan estiloari buruz hitz egitean, «benetako Herrera» dela dio. Cf. Lafuente Ferrari 1953, 238. or. Mayerrek *Familia Santua Santa Ana eta San Joan Bataiatzailearekin* izenarekin egiten dio erreferentzia koadro honi, eta, datei dagokienez, Herreraren beste batekin erlazionatzen du, *Kristo Joan, Pedro eta Santiago Santuekin* (Louis Philipp erregearen bildumakoa) delakoarekin, bai eta 1640. urtearen inguruko *San Pedro* batekin ere. Cf. Mayer 1947, 323. or.



11. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Kerubinen lau buru, c. 1635
Kanaberazko luma gardenezko paperean. 20,5 x 26,2 cm
Gabinetto Disegni e Stampe degli Uffizi, Florentzia
Inb. zenb. 10510 S



12. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitate Santua, 1636-1637
Bilboko Arte Eder Museoa
Aingerutxoen xehetasuna



13. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitarte Santua, 1636-1637
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Zakariasen xehetasuna



14. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Apostolua
 Urkolorea gardenezko paperean. 14,9 x 10 cm
 Hamburger Kunsthalle, Alemania
 Inb. zenb. 38560
 Xehetasuna

oihal hau presta-tzeko. *Lau kerubin bururen* (Santarelli bilduma izandakoa) [11. ir.]³² ikerketa bat da, goiko partean agertzen diren aingerutxoei lotu dakizkiekeenak, Aita Betierekoaren mantu urdinaren azpian [12. ir.]. Batez ere, berdin-berdinak dira ezkerreko ertzean aurrera begira dagoena eta beheko partean behera begira agertzen dena, buruaren alde banatan hego eta guzti, eta, beraz, figura multzo honetarako aurretiazko ikerketa erakutsiz. Era berean, Zakariasen [13. ir.] jarrera, oihalaren eskuineko ertzean, burua eskuetako batean eutsita, Hanburgoko Kunsthalle-n dagoen *Apostolua* urkolorean ikusten denaren berdina da [14. ir.]³³. Seguru asko, Herreraren erreperitorioan, figura ezberdinetarako marrazki trukagarri bat izango da.

Zalantzarik gabe, obraren edertasunak eta, batez ere, kolore erre hain flandestarrak (Martin de Vosen erara), zein egikera hain oretsuak (materia aberastasuna), protagonismo osoa hartu zuen 1992an egin zitzaion azken interbentzioan³⁴; batez ere, pinturak argitasunean irabazi zuenaren ondorioz, baita urre tonuetako kromatismo aberatsean ere. Horrek argitzen dizkigu, orain beste inoiz baino hobeto, artikulua honen hasieran obraren egiletzari buruz aipatu ditugun zalantzak. Izan ere, Juan de Roelasena zela pentsatzen zen, hau da, naturalismoaren aitzindari-taldeari dagokionez, XVII. mendeko lehenengo hamarkadetan Sevillan izan zen beste margolari garrantzitsuarena. Hala ere, Herrerak pintura honetan nabarmentzen dituen tipoetako batzuk guztiz ohikoak dira bere erreperitorioan. Horrelaxe nabarmentzen da San Joseren buruan [15. ir.], oihalaren ezkerreko ertzean. Irudi horixe erabili zuen beste hainbatetan ere *San Jose Haurrarekin* egiteko eredu bezala. Horietako batzuetan, halaber, artearen merkatuan oraintsu agertu den bezala [16. ir.]³⁵, antzeko kolo-

32 Angulo/Pérez Sánchez 1985, 24. or., 41. zenb., XIV. ir.

33 Ibid., 20. or., 18. zenb., VI. ir.

34 Ikus Bilbao 1992; Ana Sánchez-Lassa eta María José Ruiz-Ozaitaren azterketa teknikoa dauka.

35 *Senitarte Santuko* honetatik hurbilen dagoen San Joseren modelo fisikoa duela gutxi Valdiviesok ezagutzera emandakoa da in Madrid 2007, 44-45. or., 14. zenb.



15. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
Senitate Santua, 1636-1637
 Bilboko Arte Eder Museoa
 San Joseren xehetasuna



16. Francisco de Herrera Zaharra (c. 1590-1656)
San Jose
 Olioa mihisean. 166 x 114 cm
 Bilduma partikularra, Madril

reak ere erabili zituen, bai aurpegiaren haragi-koloreari dagokionez, bai San Joseren arropen dagokienez (tonu urdin eta arreak), baita hauraren tunikaren aberastasunari dagokionez ere, kukurutx-arrosa. Antzeko kolorea dauka *Senitate Santua* pinturaren aurreko partean agertzen den San Joan Ebanjelariaren haur-figurak ere.

Herreraren obra, tipoen eta ereduaren aberastasunari eta bere pintzeladaren suhartasunari esker, beste artista batzuentzako iturri ere izan zen. Murillo gazteak zein Zurbaránek berak ere jakin zuten Herrerek obra honetan egin zuen Ama Birjinaren profilezko tipoa aprobetxatzen. Margolari extremaduratarrak eredu hori hartu zuen aintzat *Ama Birjina Haurrarekin*, Habanako Museo Nazionalean, obrarako. Eta Herreraren koadroan arkumea-rengana gerturatzen den San Joan hauraren profila Murilloren oihal batean agertuko da berriro: *San Diego behartsuei jaten ematen*, San Fernandoko Arte Eder Akademiako Museoa, Madril.

Beraz, beste behin ere, fruiturik onenak hurrengo belaunaldian eman zituzten artisten maisu eta eredu izan zen Herrera; bera izan zen haien arragoa. Hainbesteraino, ezen enpaste mota bera eta pintura-materia kontzentratzeko modu bera imitatu baitzituzten. Herreraren pintura, beraz, barroko beteko maisu bitxi batzuen sormenerako elikagai bihurtu zen.

BIBLIOGRAFÍA

Angulo 1971

Diego Angulo Íñiguez. «Pintura del siglo XVII», *Ars Hispaniae*, XV. libk. Madrid : Editorial Plus Ultra, 1971.

Angulo/Pérez Sánchez 1985

Diego Angulo Íñiguez ; Alfonso E. Pérez Sánchez. *A Corpus of spanish drawings : volume three : Seville, 1600 to 1650*. London : Harvey Miller, 1985.

Arana 1791

Fermín Arana de Varflora (honako honen izengoitia: Fernando Díaz de Valderrama). *Hijos de Sevilla ilustres en santidad, letras, armas, artes o dignidad*. Sevilla : Imprenta de Vazquez è Hidalgo, 1791.

Barrio 1981

José Luis Barrio Moya. «Noticias de Nardi, F. Rizi y Pedro de Mena», *Archivo Español de arte*, 54. libk., 216. zenb., 1981, 452.-453. or.

Baticle/Marinas 1981

Jeannine Baticle ; Cristina Marinas. *La galerie espagnole de Louis-Philippe au Louvre, 1838-1848*. Paris : Éditions de la Réunion des musées nationaux, 1981.

Bilbao 1992

La restauración de «La Sagrada Familia de Herrera el Viejo» = Herrera Nagusiaren «Familia Sakratua»ren berriztapena. [Erak. liburuxka]. Ana Sánchez-Lassa de los Santos ; M^a José Ruiz-Ozaita ; Ana Galilea Antón. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilboko Arte Ederretako Museoa, 1992.

Burger 1857

W. Burger. *Trésors d'art exposés à Manchester en 1857 et provenant des collections royales, des collections publiques et des collections particulières de Grand Bretagne*. Paris : J. Renouard, 1857.

Galilea Antón 1992

Ana Galilea Antón. «Herrera el Viejo y "la Sagrada Familia"», *La Restauración de «La Sagrada Familia de Herrera el Viejo» = Herrera Nagusiaren «Familia Sakratua»ren Berriztapena*. [Erak. liburuxka]. Ana Sánchez-Lassa de los Santos ; M^a José Ruiz-Ozaita ; Ana Galilea Antón. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilboko Arte Ederretako Museoa, 1992.

Gómez Ímaz 1896

Manuel Gómez Ímaz. *Inventario de los cuadros sustraídos por el gobierno intruso en Sevilla el año de 1810*. Sevilla : [s.n.], 1896 (en la Oficina de E. Rasco).

González de León 1844

Félix González de León. *Noticia artística histórica y curiosa de todos los edificios públicos, sagrados y profanos de (...) esta muy noble, muy leal, muy heroica e invicta ciudad de Sevilla*. Sevilla : José Hidalgo y Compañía, 1844.

Kubler/Soria 1959

George Kubler ; Martín Soria. *Art and Architecture in Spain and Portugal and their American dominions, 1500 to 1800*. Harmondsworth : Penguin, 1959.

Lafuente Ferrari 1953

Enrique Lafuente Ferrari. *Breve historia de la pintura española*. Madrid : Tecnos, 1953 (4. ed. berr. eta hand.).

Lasterra 1967

Crisanto de Lasterra. *Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Madrid : Aguilar, 1967.

López Martínez 1928

Celestino López Martínez. *Arquitectos, escultores y pintores vecinos de Sevilla*. Sevilla : Rodríguez, Giménez & Co., 1928.

Madoz 1849

Pascual Madoz. *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar...*, XIV. libk. Madrid : [s.n.], 1849.

Madril 1986

Carreño, Rizi, Herrera y la pintura madrileña de su tiempo, 1650-1700. [Erak. kat., Madril, Palacio de Villahermosa]. Alfonso E. Pérez Sánchez (zuz.). Madrid : Ministerio de Cultura : Museo del Prado : Banco Herrero, 1986.

Madril 2007

El tiempo de la pintura : maestros españoles de los siglos XVI al XIX. [Erak. kat.]. Ángel Aterido Fernández (zuz.). Madrid : Coll & Cortés Fine Arts, 2007.

Martínez Ripoll 1978

Antonio Martínez Ripoll. *Francisco de Herrera «el Viejo».* Sevilla : Excma. Diputación Provincial, 1978.

Mata 1929

Juan de Mata Carriazo. «Correspondencia de don Antonio Ponz con el Conde del Águila», *Archivo Español de Arte y Arqueología*, 1314. zenb., 1929ko maiatza-abuztua, 157.-183. or.

Mayer 1947

August Liebmann Mayer. *Historia de la pintura española.* Madrid : Espasa-Calpe, 1947 (3. ed.).

Moreno 1994

Fernando Moreno Cuadro. *Iconografía de la Sagrada Familia.* Córdoba : Cajasur, 1994.

Navarrete 2003

Benito Navarrete Prieto. «La Santa Catalina del Mariscal Sout, obra de Murillo, procedente de la iglesia de Santa Catalina de Sevilla», *Goya : revista de arte*, 295-296. zenb., 2003, 263.-268. or.

Ponz 1947

Antonio Ponz. *Viaje de España : seguido de los dos tomos del Viaje fuera de España.* Madrid : M. Aguilar, 1947.

Réau 1996-1998

Louis Réau. *Iconografía del Arte Cristiano.* Barcelona : Ediciones del Serbal, 1996-1998 (5 libk.).

Sevilla/Bilbao 2005

De Herrera a Velázquez : el primer naturalismo en Sevilla. [Erak. kat., Sevilla, Hospital de los Venerables; Bilbao, Bilboko Arte Ederren Museoa]. Alfonso E. Pérez Sánchez ; Benito Navarrete Prieto (zuz.). Sevilla : Fundación Focus-Abengoa ; Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2005.

Thacher 1937

J. S. Thacher. «The paintings of Francisco de Herrera, the Elder», *Art Bulletin*, XIX. zenb., 3. libk., 1937, 325.-380. or.

Valdivieso 2003

Enrique Valdivieso. *Pintura barroca sevillana.* Sevilla : Guadalquivir, 2003.